



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

IZURRITEEN KONTROLA

Definizioa

Izaki bizidunek (karraskariak, intsektuak, txoriak...) sor lezaketen kutsadura ekiditea du helburu neurri multzo honek, izaki bizidun horiek kutsadura eraman baitezakete instalazioen kanpoaldetik elikagaietako industriaren barrualdera.

Ahal den neurrian, intsektuek eta karraskariak industria kolonizatzea saihestu behar dugu; izan ere, izurrite mailara helduz gero, horien kontra borrokatzea gero eta zailagoa izaten da eta beharrezkoa izaten da, halaber, produktu toxikoak erabiltzea.

Izurriteek eragindako infestazioak honako kasu hauetan gertatzen dira:

- Izaki horiek sarrera ahalbidetzen duten gunek daudenean.
- Izaki horiek babestu eta tenperatura egokian ugaltzeko gunek daudenean.
- Izakiek elikagaiak eta ura hartu ahal dituztenean.

Gaur egun, izurriteen kontrol integrala egin ohi da. Kontrol integral hori metodo fisikoak, biologikoak eta kimikoak erabiltzean datza (hurrenkera horretan). Izan ere, horien bidez ingurumen-inpaktua eta koste ekonomikoa baxuagoak izaten dira, eta, ondorioz, eraginkortasun maila altuagoa izaten da.



a. Kontrol fisikoa:

Giro eta egituraren ezaugarriak aldatzean datza, eta horrela saihestuko dugu izurritea sortu eta zabaltzea. Adibidez: leihoetan saretak instalatzea, txoriak sar ez daitezen.

b. Kontrol biologikoa:

Harrapakin-harrapari sistemak erabiltzean datza edo kontrolatu nahi dugun izurritearen eragile patogeno selektiboak erabiltzean (oro har, ingurumen mailan). Adibidez: feromonekin bustitako paperak erabiltzea intsektuak erakartzeko.

c. Kontrol kimikoa:

Izurriteak errotik kentzeko, substantzia kimikoak aplikatzean datza. Adibidez: arratoiak hiltzeko produktuak aplikatzea karraskariak igarotzen diren lekuetatik.

Izurriteen kontrako borrokan, lehenengo urratsa izaten da **prebentziozko neurriak** hartzea. Neurri horiek bideratuta daude intsektuak eta karraskariak industrian sar daitezela saihesteko, hala nola:

- Intsektuen kontrako sareak jartzea, atak itxita izatea, zulo edo arrakalarik ez dagoela bermatzea, intsektuak, parasitoak, karraskariak ez sartzeko babes-saretak edo amuak... jartzea, etab.
- Neurriak hartzea animalia horiek hel ez daitezen elikagai edo edari gisa hartu ahal dituzten substantziak hartzera. Elikagaiak gordetzen ditugun guneak, hondakinak edo zarama sortu edo pilatu daitezkeen guneak, hondakin-urak ateratzen diren guneak eta ura pilatzen den lekuak kontrolatzea.
- Instalazioak garbi izatea.
- Hondakinik ez pilatzea.
- Produktuak modu egokian biltegitratzea.
- Lokalak modu egokian izatea.

Dokumentazioa

Beharrezkoa da Izurriteak Kontrolatzeko Plana izatea.

Programa integratua izango da, eta dokumentuen bidez honako hauek jasoko ditugu:

- Hartuko ditugun prebentziozko neurriak, izurritea sortu ahal duten izakiak instalazioetan sar daitezela saihesteko.
- Erabiliko ditugun ekipo eta produktuak, eta aplikatzeko metodologia ere jaso egingo dugu.
- Izurriteak kontrolatzeko puntu eta gune guztiak.
- Tratamenduen maiztasuna eta tratamendu bakoitzarekin errespetatu behar dugun segurtasun-epaia.
- Tratamenduaren aplikazioa balioztatzeke irizpideak.
- Izurriteak monitorizatzeko sistema. Sistema horrek honako hauek izango ditu kontuan: zaintza mota, maiztasuna, kokapen guneak eta zein den horretarako arduraduna.
- Aurrera eramandako ekintzak eta hartutako neurri zuzentzaileak erregistratzeko sistema.

Izurriteen kontrako plana eraginkorra izan dadin garrantzitsua da garbitu eta desinfektatzeko planaren, instalazioak eta ekipoak mantentzeko planaren eta ekoizpen praktika egokietarako planaren artean harreman estua izatea.